

## **10/1989 Foru Araua, ekainaren 30ekoa, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzkoa (BAO Uztailaren 19koa)**

Bizkaiko Batzar Nagusiek, 1989ko ekainaren 30eko Osoko Bilkuran, Instalazio, Eraikuntza eta Obren gaineko Zergari buruzko 10/89 Araua onetsi dute, eta nik aldarrikatu egin dut eta argitaratu dadila agindu dut. Horren berri eman dut, foru arau hori aplikatu behar zaien herritar guztiek, norbanako nahiz agintari, hura bete eta betearazi dezaten..

### **10/89 FORU ARAUA, ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGARI BURUZKOA**

Ekonomia-ltuneak Kondaira Lurraldeetako Erakunde agintedunei, zerga-erregimena zaintzeko, jartzeko eta araupetzeko, aitortzen dien aginpidearen indarrez, Foru Arau honek Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga araupetu nahi du.

Toki-Ogasunei buruzko Foru Arauak sortu du zerga hau, Udalerrien baliabide-sistema berri bat sortzeko asmotan, hots, ikuspegi materialetik, finantz-autonomia eta nahikotasuneko erizpideak gauzatzeko bide eman dezan sistema bat.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga borondatezko tributu moduan eratzen da, toki-mailako zerga sistema osatzen duena.

### **I. KAPITULUA IZAERA ETA EGITATE EZARGARRIA**

#### **1. artikulua.**

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga zeharkako tributua da, eta, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko udalerrien barruan egiten diren obra- edo hirigintza-lizentzia menpeko eraikuntza, instalazio edo obrak egitea da bere zerga-egitatea, lizentzia hori lortuta izan edo ez izan arren, baldin eta lizentzia ematea zerga-udalari badagokio. Era berean, erantzukizunpeko aitortpena edo aurretiko komunikazioa aurkeztea eskatzen duten eraikuntza, instalazio edo obrak ere zergaren zerga-egitate dira.

### **II. KAPITULUA SUBJEKTU PASIBOAK**

#### **2. artikulua.**

1. Ondorengoak ditugu, zergadun moduan, zerga honen subjektu pasiboak: Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan aipatutako pertsona juridiko edo erakundeak, eraikuntza, instalazio edo obren jabe direnak, haiek dauden higiezinaren jabe izan zein ez.

Aurreko paragrafoaren ondoreetarako, eraikuntza, instalazio edo obraren jabea haren gastuak edo kostuak jasaten dituena da.

2. Eraikuntza, instalazio edo obra ez badu subjektu pasibo zergadunak egiten, beraren ordezkoko subjektu pasibo izango dira eraikuntza, instalazio edo obrak egiteko lizentziak eskatzen dituztenak, edo erantzukizunpeko aitortpenak edo aurretiko komunikazioak aurkezten dituztenak edo eraikuntza, instalazio edo obra horiek egiten dituztenak.

Ordezko subjektu pasiboak ordaindutako zerga-kuotaren zenbatekoa eskatu ahal izango dio zergadunari.

### **III. KAPITULUA**

#### **OINARRI EZARGARRIA, KUOTA ETA SORTZAPENA**

##### **3. artikulua.**

1. Zerga-oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostua izango da; benetako kostua hura burutzeko kostua izango da.

Ez dira sartuko zerga-oinarrian ez Balio Erantsiaren gaineko Zerga, ez araubide bereziko antzeko gainerako zergak, ez tasak, ez prezio publikoak, ez eraikuntza, instalazio edo obrarekin zerikusia duten ondarearen gaineko gainerako toki prestazioak, ez profesionalen ogibidesariak, ez kontratariaren enpresa-mozkina, ez burutzapen materialaz kanpoko gainerako kontzeptu guzti

2. Oinarri ezargarriri karga tasa aplikatuz aterako da, zerga honen kuota.
3. Zergaren karga-tasa udalak finkatuko du. Tasa hori ezin izango da 100eko 5ekoa baino handiagoa izan
4. Zergaren sortzapena eraikuntza, instalazio edo obra hasterakoan bertan gertatzen da, beharrezko lizentzia jaso ez bada ere.

### **IV. KAPITULUA**

#### **KUDEAKETA**

##### **4. artikulua.**

1. Kasu hauetan egingo da konturako behin-behineko likidazioa: nahitaezkoa den lizentzia hori ematen denean; edo erantzukizunpeko aitorpena edo aurretiko komunikazioa aurkezten denean; edo nahitaezko lizentzia hori oraindik eskatu, ukatu edo eman gabe dagoen arren eraikuntza, instalazio edo obra hasi egiten denean. Honelaxe zehaztuko da zerga-oinarria:

- a) Interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera, baldin eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsi badu, ikus-onespen hori aginduzkoa denean.
- b) Zerga ordenantzak hala ezartzen duenean, ordenantza horrek horretarako ezartzen dituen indizeen edo moduluen arabera.

Eraikuntza, instalazioa edo obra bukatu ostean, eta hark izandako benetako kostua kontuan harturik, administrazio-egiaztapen bat egingo du udalak, eta aldatu egingo du, beharrezkoa bada, aurreko letran aipatutako zerga-oinarria; ondorioz, behin-betiko likidazioa egingo du, eta dagokion kopurua eskatu edo itzuliko dio subjektu pasiboari.

2. Ordenantza fiskaletan hobari hauek ezar daitezke Zergaren kuotan aplikatzeko:
  - a) %95era arteko hobaria gizarte-inguruabar edo inguruabar historiko-artistiko bereziak direla eta edo enplegua edo txandakatzeko alojamendu iraunkorra sustatu beharra dela eta interes berezikotzat edo udalerrien onurarakotzat jotzen diren eraikuntza, instalazio edo obretarako.
  - b) 100eko 95erainoko hobaria eraikuntza, instalazio edo obren alde:
    - Eguzki-energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak dituztenak. Hobari hori aplikatzeko baldintza izango da beroa sortzeko instalazioen barruan administrazio eskudunak homologatutako kolektoreak edo berokuntzarako eta iturriko ura berotzeko sistemak egotea.

- A edo B motako etiketa energetikoa lortzeko birgaitze energetikoa helburu dutenak. Ondorio horietarako, hobariaren ehunekoa desberdina izan daiteke etiketa energetikoaren motaren arabera.
- Higiezin birgaitze integrala helburu dutenak, birgaitze energetikoa eta irisgarritasuna barnean hartuta. Ondorio horietarako, birgaitze energetikoaren helburua A edo B motako efizientzia energetikoaren etiketa lortzea izan behar da.
- Udalerriko eremuen edo auzoen birgaitze integraleko proiektuen esparruan egitea, energia berriztagarriak sartzeko.

Letra honetan aipatzen den hobaria indarrean dagoen legeriaren arabera inbertsioa nahitaezkoa ez duten kopuruei bakarrik aplikatuko zaie.

Letra honetan ezarritako hobaria aurreko a) letrako hobaria aplikatzearen emaitzako kuotari aplikatuko zaio, halakorik egonez gero.

- c) %50era arteko hobaria azpiegituretan inbertsio pribatua ezartzea sustatzeko planei lotutako eraikuntza, instalazio edo obretarako.

Letra honetan ezarritako hobaria aurreko a) eta b) letrakoak aplikatzearen emaitzako kuotari aplikatuko zaio, halakorik egonez gero.

- d) %50era arteko hobaria babes ofizialeko etxebizitzetara lotutako eraikuntza, instalazio edo obretarako eta %95era arteko hobaria etxebizitza horiek etxebizitza sozialen sailkapena baldin badute.

Letra honetan ezarritako hobaria aurreko letrakoak aplikatzearen emaitzako kuotari aplikatuko zaio, halakorik egonez gero.

- e) %90era arteko hobaria ezinduen ibilera eta bizimodua errazten dituzten eraikuntza, instalazio edo obretarako.

Letra honetan ezarritako hobaria aurreko letrakoak aplikatzearen emaitzako kuotari aplikatuko zaio, halakorik egonez gero.

Idatz-zati honetan aipatutako hobarien gainerako alderdiak, funtsezkoak zein erazkoak, ordenantza fiskalean araupetuko dira. Besteak beste, ordenantza fiskalean ezarriko da hobari horiek, edo haietako batzuk, ezin direla aldi batera aplikatu.

- 3. Zerga ordenantzek zerga-kuota osoaren edo hobaritutako kuotaren kenkari gisa ondokoa ezarri ahal izango dute: subjektu pasiboak kasuan kasuko eraikuntza, instalazio edo obrarako hirigintza-lizentzia emateagatik ordaindutako edo ordaindu behar duen tasaren zenbatekoa.

Aurreko idatz-zatian aipatutako kenkariaren gainerako funtsezko eta erazko alderdiak zerga ordenantzaren araupetuko dira.

- 4. Udalek zerga hori autolikidazio-araubidean eskatu ahal izango dute.
- 5. Udalek euren ordenantza fiskalean zerga hau eta lizentziaren gaineko tasa batera eta koordinaturik kudeatzeko sistemak ezarri ahal izango dituzte

## **XEDAPEN GEHIGARRI**

### **Bakarra. Salbuespena.**

Unibertsitate publikoek eta haiei atxikitako zentro publikoek zerga-salbuespena izango dute, aldez aurretik eskatuta, beren helburuak betetzera lotutako ondasun higiezinetan egindako eraikuntza, instalazio edo obrei dagokienez.

## **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

### **Lehenengoa.**

Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga, hala gertatuz gero, 1990.eko urtarrilaren lehenengoaz geroztik exijituko da.

Egun horretara arte, Foru Arau honek araupetzen duen zergak ordezkutzen dituen tributuen eskatuko dira.

### **Bigarrena.**

Foru Arau honek aipatzen dituen udalerrien egungo tributuen ezabaketa, haren aplikazioaren ondorioa izanik, bai eta tributuen horientzat aginduzko diren xedapenen indargabeketa administrazioak, xedapen horien arabera, aurretik sortutako zorrak exigitzeko duen eskubidearen kalterik gabe ulertzen dira.

## **INDARGABETZE-XEDAPENA**

1. Honako Foru Arau hau indarreko bihurtuz gero, berean ezarritakoaren aurka doazen maila bereko nahiz beheagoko xedapenak indarririk gabe utziko dira.
2. Aurreko atalean xedatutakoa Foru Arau honen Xedapen Iragankorretan ezarritakoaren kalterik gabe ulertzen da.

## **AZKEN XEDAPENA**

1. Foru Aldundiari baimena ematen zaio, honako Foru Arau hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak emateko.
2. Honako Foru Arau hau "Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Egunkarian" argitaratu eta biharamonetik bihurtuko da indarreko.

Bilbon, 1989.eko ekainaren 30ean,

Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak,

ANTON AURRE Y ELORRIETA.

Bizkaiko Batzar Nagusietako lehenengo idazkaria,

ROBERTO OTXANDIO IZAGIRRE.